

Inozentziaz, inozentea izan gabe

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Inozentziaz idatzi nahiko nuke inozentea izan gabe. Martxoaren 8aren giro honetan nire puska bat erakutsi, aportatu, gehiegi biluzi gabe. Inozentziaren biolaziotik, engainuak sortzen duen min sakonetik askatasunerako eta askitasunerako bideaz zer-bait kontatuko dut. Bertzearen begietatik existitzeaz eta, gehienetan, ez existitzeaz. Urruneko aginteaz eta honen *pause* botoiaren krudelkeriaz. Bertzeak zapaltzen du, nahi duenean, nahi duen arte. Bitartean bere bizia egiten du eta norbera zain gelditzen da, peli-

kula bat gelditzen dugunean aktoreak egoten diren bezain izoztuta. Berdin du zertan ari garen, zer behar ditugun.

Norbere agintea berreskuratzeke prozesua goraipatu nahi dut, eta mandoa eta norbere giltzak inoiz ez uzteko aldarria egin. Muturreko maskulinitatea oroitu nahi dut: Hamlet. Bere aitarren heriotza mendekatzearekin obsesionatua, “izan ala ez izan?” galdetzen du. Ofeliak, aldiz, berarekin seko maiteminduta, “maite nau ala ez nau maite?” jakin nahi du loreei petaloak kenduz. Hamletek bertze bat hiltzen du

gizon izateko; Ofeliak, bere buruaz bertze egiten du, maiteminez. Beldurgarria da, baina zabaltzen ari den ahizpatasunari erreparatu nahi diot. Norbere osotasunaz jabetzeko prozesuari. Gureak ez diren norietatik jaitsi eta haserretzeko eta haserrea agertzeko eskubidea emanez gure buruari. ‘Honaino’ erranez. Norbere burua ongi maitatzeko eta askatasun eta askitasunaren bide horretako euforia uneak biziz. Inozentea izan banaiz, gehiegi biluzi banaiz, berdin zait. Jada berdin zait. Ze arraio, gustura gelditu naiz! •

Euskaraldiatik lan mundura

**Xabier Mikel
Errekondo**

Aurretik errezelo ugari sortu bazituen ere, inork ezin uka Euskaraldiak arlo ezberdinetan lortutako arrakasta. Ahobizi eta belarriprest jarrerak eraginkor eta enpatiko bilakatu ziren, jendarte aktibatzerak eramanez. Merezi zuen politika estrategikoek behin eta berriz marjinalitatara kondentatzen duten euskarak halako hauspoa, bizitza politiko-sozialaren erdigunean kokatuta, behingoz.

Baina, Euskaraldia apar huts bihurtu dadin, lan bateratua egiten eta pauso antzak ematen jarraitu beharko da. Nago garrantzitsuenetako bat lan munduan

eman behar dela, erdalduna eta erdalduntzailea den bitartean hezkuntzan egi(te)n den inbertsioa antzu geratzen baita, Jon Sarasuak “Berria”-n (martxoak 3) zuzen asko dioen bezala.

Lan harremanak eta barne kudeaketa euskalduntzeko enpresek denbora behar dute, noski, baina batez ere borondatea, eta borondatea pizteko behar-beharrezkoak dira Administrazioaren laguntza eta presioa. Goraipatzekoa EMUN eta udalen ahaleginak. Urrats handien zain gelditu gabe, baina, eragin daiteke. Usurbilgo udal gobernuan egin nituen urteetan enpresei albaran eta fakturak euska-

raz exijitzen genizkien, edo bost industriaguneetako lantegien kanpo azaleko txartelak euskalduntzeko dirulaguntzak eskaini, edo obretako iragarkiak euskaraz idatzarazi...

Milaka enpresarentzako bezero oso garrantzitsuak dira udalak, aldundiak, Jaur-larritza eta enpresa publikoak. Zertarako ikasi-hezi-aritu euskaraz lan mundua erdalduna bada? Eta, aitzitik, konturatzen gara lan mundua euskalduna balitz gizar-tearen arlo oro euskaraz blaitua legokeela?

Administrazio botereek izugarri eragin dezakete. Bezate! •